

Korrika martxoaren 14an helduko da



AEK bi urtez behin antolatzen duen Korrika jaia, aurten "Eman Euskara Elkarri" lelopean, martxoaren 14 gauean helduko da Zeraina. Zehazki, ostegun eta ostiral arteko gaueko 00:25etan iristea espero da. Egun horretan bertan abiatuko da Korrika Andoaindik, eta Zeraina Mutilotik iritsiko da. Hemendik Segurara jaitsiko da. Aurrez, ostegunean bertan, arratsaldeko 6:30etan, aurten-go Korrikarako prestatu duten dokumentala eskainiko da kultur etxean. Animatu denok eta etorri euskararen aldeko jaian parte hartzera!

Zerain herri ereduaren hausnarketaren aurkezpena martxoaren 15ean egingo da

Azaroaren 9an eta 10ean "ZERAIN HERRI EREDUA: Nola etengabe berritu eta egokitu" saioa egin genuen herrian. 40 lagun inguruk parte hartu zuten eta etorkizunera begirako nola-ko Zerain nahi genuen planteatu zen bertan. Han ateratakotik abiatuta Berrikuntza Agenda osatu da eta 3 proiektu estrategiko definitu dira. Horrela bada, batzar haietan landutakoaren berri emateko aurkezpena egingo da martxoaren 15ean 18:00etan, kultur etxean. Egun haietan landutakoari buruzko bi bideo erakustez gain, Berrikuntza agendari buruz ateratako ondorio nagusiak azalduko ditu Joxe Manuel Oria alkatetik. Ondoren gazta eta sagardo mokadutxoia izango da.

Santa Ageda bezpera usadioa berrituz



Urteroko legean, eta ohitura zaharrari jarraituz, Santa Ageda bezperan herritar talde handia ibili zen kantuan eta eskean etxez etxe. Kopla zaharrak kantatuz bildutako dirua Goierriko Caritasi emango zaio laguntza moduan. Gauean, eguna behar bezala amaitzeko, lagunarte ederrean egin zuten afaria kantura irten zirenek.



Herriko hondakinak biltzeko modelo berria

Herriarrak honezkero konturatu gara Gipuzkoan zaborraren dagoen arazoaz. Hori dela eta herri guztietan aldaketak ari dira proposatzen ahalik eta gehien birzikla dezagun eta bide horretan, ahalik eta zabor (errefusa) gutxien sor dezagun. Epe motzera organikoa ez biltzea ari dira planteatzen Sasieta eta Udala.

Hau dela eta Zeraingo Udalak bat egin du Sasietak herri txikietarako proposatzen duen ereduarekin. Eredu hau konpostajearen eta organikoaren autokudeaketan oinarritzen da. Hau da, norberak egingo du etxean organikoaren bereizketa eta tratamendua (batzuentzat hau ez da berria izango). Gainontzeko hondakinak berriz, gaika bilduko dira herri-gunean dagoen bilketa gune bakarrean. Beraz, epe motzera, organikoa ez biltzeaz gainera, herrian zehar dauden hainbat edukiontzi berde kentzea aurreikusten da.

Eredu berri hau azaltzeko Sasietako teknikariak etorri ziren



otsailaren 27an herrira, eta ondoren, konpostajearen ikastaroa egin zen bertan elkartu zirenekin. Ikastaroa egin ondoren Sasietak bertaratu zirenei debalde eman zizkien konpostagailua, nahasteko torlojua eta gida.

Gurea Taldea etxeetan, berriz,

auzo-konposta delakoa planteatu da. Bi etxeren artean konpostatzeko gune bat izango dute, hau da, zortzi bizitzako bat. Aurki finkatuko da bertan bizi direnekin beste egun bat auzo-konpostaje hau nola, non... egin erabakitzeko.

Inauteriak eskolan eta Iban Garateren bisita



Herriko ikastolako umeok aurten ere inauteriak primeran ospatu ditugu: Otsailaren 8an Seguran izan ginen punky-s mozorrotuta, Segurako haurrekin batera dantzan egin eta txokolate beroa janez. Asteartean, otsailaren 12an berriz, Zeraingo ikastolan mozorrotu eta koreografia batzuk dantzatu ondoren, maisunen merendola eder bat prestatu ziguten gurasoek. Orain mozorroak armairuan sartu eta dato-



rrren urteko inauterien zain gelditu beharko gara.

Bestalde, otsailaren 19an, Iban Garate aktore eta aurkezlearen bisita izan genuen. Zinearen, grabaketen eta gidioen mundua ari gara lantzen eskolan eta horri buruz hitz egiteko eta erakusteko izan genuen Iban gurekin. Oso jator portatu zen eta asko ikasi genuen berekin.

Basarte Guraso Elkarte

Endika Alustizaren XX. memoriala



Otsailaren 24an jokatu zen Endika Alustiza zenaren omenezko XX. eta azken memoriala. Honakoak izan ziren emaitzak: 1.-Pedro Lazkano, 2.-Luis Aizpeolea, 3.-Xabi Lazkano, 4.-Andoni Berasategi, 5.-Migel Burugain, 6.-Iñaki Maiz, 7.-Itoiz Alustiza eta 8.-Jokin Izagirre.

Mus txapelketa zegamarrentzat



Otsailaren 9an jokatu zen Liztormendi elkarteko mus txapelketa. Guztira 20 bikote inguruk parte hartu zuten eta herritarrek oraingoan ez zuten zer egirik eduki. Zegamako Koldo eta Roki gazteek eraman zituzten txapelak eta irabazlearen sariak, Zegamako bi beteranoren aurka.

Zilarrezko aizkoran ezin Xabik aurrera



Otsailaren 9an Zeraingo pilotalekuan jokatu zen Zilarrezko Aizkorako kanporaketan ezin izan zuten aurrera egin Xabi Dorronsoro herritarrek eta Xabier Zalduek osatutako bikoteak, Segobiako Rodriguez aita-semeen kontra. Beste kanporaketan Jauregik eta Kañamaresek egin zuten aurrera.

Argazki ederrak utzi ditu elurteak





Xagu-txoko



Babesetik

Urtarrila	al	ar	az	og	or	lr	ig
Euria (l/m)	GUZTIRA: 440 litro						
C° altuena	ALTUENA: 18,80						
C° baxuena	BAXUENA: -0,9						
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		16	7,5	0	0	0	0
C° altuena		10	8,15	10,4	10,5	10	8,9
C° baxuena		6,5	6,5	4	0,8	1,5	4,7
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	0	0	5,5	1,5		5	17,5
C° altuena	7,5	8,5	8,5	12,7	9,5	11,5	7
C° baxuena	4	2,6	-0,8	6,8	1,9	3,2	2,3
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	66,5	55,5	41	15	31	25,5	16
C° altuena	5	7,5	10	8,4	14,9	12,5	8
C° baxuena	3,5	4,3	5,6	2,9	4	9,6	4
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	6	6,5	35,5	40,5	14	17	15
C° altuena	7,7	8,5	7,2	8,2	7,3	11,3	12,5
C° baxuena	4,15	0,1	1,25	3,9	1,6	5,9	3,15
	28	29	30	31			
Euria (l/m)	2	0	0	0			
C° altuena	12,5	14,1	18,8	18			
C° baxuena	5	3,2	5,7	7,4			

Urtarrilean euria, euria eta euria

Halaxe egin du: ia atertu ere egin gabe. Bota eta bota. Hogeita bat egunetan guztira 440 litro egin ditu eta bereziki aipagarriak dira urtarrilaren 14 eta 15ean (120 litro pasatxo bi egunetan) eta hilaren 23 eta 24an egindakoak (75 litro pasa bi egunetan). Errekak ondo hazita joan dira eta zelai bazter eta baso guztietan ura etorri da. Tenperaturari dago-kionez hotz handirik gabe pasa dugu. Aurtan hilteltza hil bustia izan da benetan.



Euskal Herriko itzulua: txirrindularitza ikuskizuna eta errepidea moztuta



Euskal Herrian jokutzen den txirrindularitza proba nagusia aurtan bi egunetan pasako da herritik. Apirilaren 5ean, ostirala, hiru aldiz pasako da Zeraindik arratsaldeko 15ak eta 17ak bitartean. Azken itzulian gainera, Barbari igoko dute Otatza aldetik. Hurrengo egunean berriz, apirilaren 6an, Beasain-Beasain erlojuaren aurkako etapa izango dute txirrindulariek eta ibilbidea Zeraindik pasako denez, banan-banan ziklista guztiak ikusteko aukera egongo da 14ak aldera hasi eta 17ak pasatxo arte. Puntako txirrindularitza etorriko zaigu, beraz, herrira, baina errepi-dean hainbat oztopo ere izango dira. Ziklistek pasa behar duten ordu horietan errepi-dea moztuta izango baitugu.

Emakumeen eguna ospatzeko afaria

Emakumearen nazioarteko eguna, martxoak 8, ospatzeko afaria egingo da azken urteotako ohiturari jarraituz. Aurtengoan afaria Ostatur izango da, eta ostirala izaki, egun horretan bertan egingo da. Afariaren kostua 15 eurokoa izango da eta Ostatur bertan ordaindu behar da izena ematerakoan. Gaueko 9etan izango da afaritarako ordua, eta aurrez, 8etan, herriko trikitilariak lagunduta poteoa egingo da Mandiotik abiatuta. Emakume edo gizon, animatu emakumearen eskubideen aldeko festan parte hartzera!

Sortu alderdiaren aurkezpena herria

Euskal Herrian sortu berri den alderdia, Sortu, otsailaren 14 iluntzean aurkeztu zuten Zeraingo kultur etxean. Alderdiaren aurkezpenaz gain, herrian Sorturen alde lan egiteko prest daudenekin beste bilera bat egin zen handik bi astea. Aurrerantzean, herriko Sorturen taldea martxan izango da.